Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea — ZUZENBIDE FAKULTATEA / FACULTAD DE DERECHO

JUSTIZIA SOZIALAREN ALDEKO KLINIKA JURIDIKOA — JSKJ CJJS — UPV EHU — CLÍNICA JURÍDICA POR LA JUSTICIA SOCIAL

**ZUZENDARITZA KONTSEILUAREN BEHIN-BEHINEKO BILERAREN DEIALDIA/ CONVOCATORIA PROVISIONAL DE REUNIÓN DEL CONSEJO DE DIRECCIÓN**

**Data/Fecha**: 2023eko uztailaren 4an/ 4 de julio de 2023
**Tokia/Lugar**: Klinika Juridikoaren egoitza/Sede de la Clínica Jurídica
**Ordua/hora:** 16:00-18:00

**Bertaratu gabeak:**

**Ezin etorria adierazi dutenak:**

| **AZTERGAIAK** | **ORDEN DEL DÍA** |
|---|---|
| 1. Aurreko bileraren akta onartzea<br>2. Zuzendaritzaren Txostena<br>3. Zuzendaritza Kontseiluaren Berritzea.<br>4. Etorkizuneko lan-ildoei buruzko gogoeta.<br>5. 2023/2024 ikasturtearen hasierako antolaketa<br>6. 2022/2023 ikasturteko ikasleen inkesten emaitzen aurkezpena<br>7. IKDi3 proiektua: EHUko Zuzenbide Fakultateko JSKJ 2025: etorkizuna justizia sozialaren balioen gainean eraikitzeko estrategia landuz<br>8. Galde-eskeak. | 1. Aprobación del acta de la sesión anterior<br>2. Informe de la Dirección<br>3. Renovación del Consejo de la Clínica<br>4. Reflexión sobre proyección de la Clínica.<br>5. Cuestiones organizativas inicio curso 2023/2024<br>6. Presentación resultados encuestas del alumnado 2022/23<br>7. Proyecto IKDi3: CJJS de la Facultad de Derecho de la UPV/EHU 2025: estrategia por la construcción de un futuro asentado en valores de Justicia Social.<br>8. Ruegos y preguntas. |
| **1. Aurreko bileraren akta onartzea.** Baiespenez onartu da.<br><br>**2. Zuzendaritzaren txostena.**<br><br>• Egoera ekonomikoa: 273 euro Berrikuntza Proiektua eta 406 euro fakultatearen ekarpenarena.<br>• Granadako unibertsitatean egin zen JSKJaren aurkezpena: ikasleen testigantzak, materialak eta abar, aurkeztu ziren bertan.<br>• JSSKJaren aurkezpena egin zen tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren aurkako legearen lan-taldean egin zen aurkezpena<br>• 2023/24 ikasturtean aurkeztutako GRALen berri eman da.<br>• Ana Perez Machio kideak baja eskatu du Zuzendaritza Batzordean. Eskertzea adierazi zaio Klinikako guztien izenean.<br>• UKS sareak gonbita bidali zuen *Universidad Popular De Los Movimientos Sociales* mugimenduaren ekintza batean parte hartzeko. EMAUSekin lankidetzan aritzea onartzen da. | **1. Aprobación del acta de la sesión anterior.** Se aprueba por asentimiento.<br><br>**2. Informe de la Dirección**<br><br>• Situación económica: 273 euros para el Proyecto de Innovación y 406 euros para la aportación de la facultad.<br>• Presentación de la CJJS en la Universidad de Granada, con testimonios de alumnado, muestras de materiales, etc.<br>• Presentación de la CJJS en el grupo de trabajo de la ley de igualdad de trato y no discriminación<br>• Se informa de los TFGS defendidos el curso 2023/24<br>• La vocal Ana Perez Machio solicita la baja en la Junta Directiva. Se le transmite mensaje de agradecimiento en nombre de todas las personas que participan en la Clínica.<br>• Invitación de la red UKSpara participar en una acción del movimiento Universidad Popular de Los Movimientos Sociales. Se acepta la colaboración con EMAUS. |

| 3. Zuzendaritza Kontseiluaren berritzea | 3. Renovación del Consejo de la Clínica |
|---|---|
| • Baja baten eskaria egon da.<br>• Une honetan ikertzaileen ordezkari den kide batek lan-egoera aldatu du, eta irakasle-lanetan ari da.<br>• Bi pertsonak adierazi dute Klinikako Zuzendaritza Kontseiluaren kide izateko prestasuna.<br>• Proposatu da Zuzendaritza Batzordearen osaeraren araudiaren aldaketa egitea, batzordekideen kopuruak egokitzeko: 12 IRIren ordez, 15 IRI izatea. Ikertzaileen ordezkarien kasuan, berriz, 1etik 2ra zabaltzea proposatu da. | • Se ha recibido una solicitud de baja.<br>• La representante del colectivo de personal de investigación ha modificado su situación laboral, y, actualmente, es docente-investigadora.<br>• Dos personas han mostrado su disposición e interés para incorporarse al Consejo de la Clínica.<br>• Se propone la modificación del reglamento de composición de la Junta Directiva, concretamente, que el número de PDI se amplíe de 12 a 15 representantes y que el número de personas representantes del colectivo de personal investigador se amplíe de 1 al 2. |
| **4. Etorkizuneko lan-ildoak: gogoeta.** | **4. Reflexión sobre proyección de la Clínica.** |
| • Klinika Juridikoaren lehen etapan proiektuaren parte bat garatu eta kontsolidatu da: bereziki, ikaskuntza-komunitatearen garapenari dagokiona.<br>• Horrez gain, muga batzuekin, baina kanpoko erakundeekiko harremanetan ere hainbat proiektu bideratzeko bideak urratu dira.<br>• Alabaina, hirugarren helburu bat ere ezarri zen: herritarrentzako zuzeneko arreta eskaintzearena. Horretarako, hainbat urrats egin beharko lirateke:<br>o Beste kliniken esperientzia berrikusi eta ereduak alderatu beharko lirateke: zein diren kontuan hartu beharreko baldintzak eta mugak.<br>o Erakundeekin harremanetan jarri beharko litzateke: Arartekoarekin hitz egin, abokatutzako elkargoekin hitz egin...<br>o Zerbitzuaren diseinua ere egin beharko litzateke: noiz, nork, nola, zeri buruz, zer maiztasunekin...<br>o Klinikako lankideen taldea berrikusi eta zabaldu beharko litzateke: profilak, konpromisoak... Erretiroa hartuta dauden abokatuek ere lagundu dezakete.<br>o Fakultatean ere hedatu beharko litzateke ideia hau, jendearen prestasuna lantzeko.<br>• Lehen urratsa jarduera-eremu bat finkatzea eta elkarteekin aztertzea zein izango den gure bereizgarria eta badauden zerbitzu juridikoekiko lankidetza eta harremana. | • En la primera etapa de la Clínica Jurídica se ha desarrollado y consolidado parte del proyecto, especialmente la relativa a la configuración y desarrollo de la comunidad de aprendizaje.<br>• Igualmente, aunque con algunas limitaciones, también se han consolidado relaciones con entidades externas se han abierto vías para canalizar diferentes proyectos.<br>• Sin embargo, la clínica se planteó inicialmente un tercer objetivo, de momento, no alcanzado: la atención directa a la ciudadanía. La instauración de este servicio requeriría de una serie de pasos:<br>o Analizar la experiencia de otras clínicas y comparar modelos: cuáles son las condiciones y límites a tener en cuenta.<br>o Recabar el apoyo de otras instituciones: hablar con la institución del Ararteko, hablar con los colegios de la abogacía...<br>o Elaborar un diseño del servicio: cuándo, quién, cómo, sobre qué, con qué frecuencia...<br>o Revisar y ampliar el equipo de colaboradores de la clínica: perfiles, compromisos... También pueden colaborar profesionales de la abogacía que ya no se encuentren en ejercicio activo.<br>o Esta idea debería extenderse también en la facultad para trabajar la disponibilidad del profesorado, el PAS, el alumnado, etc.<br>• El primer paso es establecer un ámbito de actuación y analizar con las asociaciones cuál va a ser nuestra seña de identidad y la colaboración y relación con los servicios jurídicos existentes. |

| | |
|---|---|
| **5. 2023/24 ikasturtearen plangintza.** | **5. Curso 2023/2024: cuestiones organizativas** |
| • Behin-behineko egutegia aurkeztu da. Lehen lauhilekoan asteazkenetan egingo dira saioak. Bigarren lauhilekoan, berriz, ostegunetan izango dira.<br>• Ikasleen hautaketarako egutegia ere aurkeztu da. Ikasleentzako jakinarazpena egiteaz nor arduratuko den zehaztu da.<br>• Bi saio, behintzat, Bizkaiko Campuisean egingo dira. Ikasleen profilaren arabera, aztertuko da Bizkaian saio gehiago egitea. | • Se presenta el calendario provisional. Durante el primer cuatrimestre las sesiones se realizarán los miércoles. En el segundo cuatrimestre, serán los jueves.<br>• Se presenta el calendario de selección del alumnado. Se ha determinado quién se encargará de informar de dicho proceso.<br>• Al menos dos sesiones tendrán lugar en el Campus de Bizkaia. En función del perfil del alumnado, se estudiará realizar más sesiones en dicho campus. |
| **6.2023/24 ikasturtearen emaitzen balioespena** | **6.Valoración de los resultados 2023/24** |
| • Oro har, ikasleen iritzi-inkestak positiboak izan dira.<br>• Master Amaierako Lanaren kasuan, bi ikaslek adierazi dute ez dutela esperientzia guztiz positiboa izan.<br>• Praktikei dagokienez, adierazi dute ez dela alde handia igarri Klinikaren bidez egindako praktiken eta bestelakoen artean.<br>• Aurkeztu diren lanak, oro har, egokiak eta kalitate onekoak direla iritzi da.<br>• Hala ere, lanaren ekarpenei dagokienez, ikasleen eta kasua eskaini dutenen iritzia jasotzea komeni dela adierazi da.<br>• Emandako kasuek ez dute beti joko bera ematen. Batzuk konplexuegiak dira, eta beste batzuk lausoegiak. | • En general, los resultados de las encuestas de opinión del alumnado son positivos.<br>• En el caso del Trabajo Fin de Máster, dos personas han manifestado su descontento.<br>• En cuanto a las prácticas, señalan que no han apreciado gran diferencia entre las realizadas a través de la Clínica y las prácticas ordinarias.<br>• Se considera que los trabajos presentados son, en general, adecuados y de buena calidad.<br>• No obstante, se apunta la conveniencia de recabar la opinión del alumnado y de quienes han ofrecido el caso, en relación a los resultados y aportaciones<br>• Se apunta que, no todos los casos aportados ofrecen el mismo juego. Algunos pueden son demasiado complejos y otros poco definidos. |
| **Proposamenak**:<br>• Kasua aurkeztean saiatzea argitzen zer den lehentasunez esperoko luketena.<br>• Aurreko urteko lanak abiapuntu hartu, eta komentatzea, lanen ezaugarriez jabetzeko.<br>• Txostena bidaltzea eta entitateek lanari buruzko irizpena ematea<br>• Proiektuen ahozko aurkezpen laburra egitea.<br>• ADDI plataforman atal berezi batean lan guztiak eskegitzea | **Propuestas:**<br>• En la presentación de casos, tratar de recabar las expectativas de quienes los han aportado<br>• Antes de realizar el trabajo, analizar y considerar las aportaciones de trabajos de años anteriores.<br>• Al finalizar el proceso, remitir a las entidades una copia de la memoria del TFG o TFM.<br>• Ofrecer a las entidades la posibilidad de una breve presentación oral de los resultados<br>• Recopilar todos los trabajos de la Clínica en un apartado específico de la plataforma ADDI. |
| **7. IKDI3 Berrikuntza Laborategia** | **7. Laboratorio de Innovación IKD3** |
| Deialdiaren baldintzen eta eskakizunen berri ematen da. Bilera honetan jorratutako 4. 5. eta 6. puntuetan aztertutakoak eta hartutako erabakiek proiektuarekin duten lotura azaldu da. | Se informa de las condiciones y requisitos de la convocatoria. Se expone la relación de los temas tratados en los puntos 4, 5 y 6 de la reunión, con los objetivos comprometidos en dicho proyecto. |
| 8. Galde-eskeak | 8. Ruegos y preguntas. |

| | |
|---|---|
| • Gogorarazten da IKDgazte beken berri ematearen garrantzia<br>• Sarien inguruko informazioa ere eman beharko litzatekeela gogorarazi da | • Se recuerda la importancia de informar sobre las becas IKDgazte<br>• Se recuerda que también habría que informar sobre convocatorias de diversos premios. |